

Bezeroekiko harremanak

Gaur egun argi dago gazteak gero eta gehiago erabiltzen dituztela sare sozialak, horregatik gure aplikazioa zabaltzeko Twitter eta Instagram moduko sareak erabiltzea egokia dela ikusten dugu.

Gure aplikazioaren publizitatea egiteko sare sozialak (Twitter eta Instagram) erabiliko ditugu. Horrez gain institutuetan poster bat jarriko dugu, bertan ikasle eta irakasleak ikusi, eta aplikazioa deskargatzeko. Azkenik, Euskal Herriko etxeetara panfleto batzuk bidaliko ditugu, eta gauzak ondo badoaz Espainia mailara zabalduko dugu Noctua.



Gure sare sozialen kudeaketa “community manager” baten eskuetan egongo litzateke. Beste enpresa batzuen adibideak, hala nola, KFC janari laster konpainiak, frogatu dute gazteekin erlazio onak eraikitzea komenigarria dela beraien konpainiak onespenez zabala izan dezan.

Hala ere, gure aplikazioa aho-ahoz zabaltzea aukera ona dela pentsatzen dugu; izan ere, ikasleen eta irakasleen artean gure aplikazioak eskaintzen duen aukerak ahoz zabaltzea gure ospea handitzeko baliagarria izango litzateke. Horretarako, institutuetan irakasleei eta ikasleei hitzaldiak egingo dugu, gure aplikazioaren funtzionamendua azaltzeko.

Kontsumidorea fidelizatzeko hainbat estrategia pentsatu dugu:

- Eskaintzak eta opariak sarri eskaintzea.
- Ikasleeak familia izango balira tratatzea.
- Haien eskaintzak eta aplikazioa hobetzeko aholkuak arretaz entzutea.



Noctuak Espainia mailan arrakasta handia baluke, Latinoamerikara ere zabalduko genuke, eta gazteleraz hitz egiten duten herrialdeetan Noctua erreferente bat bihurtzen bada, mundu osora zabalduko dugu.

